

Iñaki Larrañaga  
Kike Amonariz

.....  
SIADECO ikerketa taldekoak  
.....

# Euskararen erabilpenaren neurketak direla eta

■ Donostiako leku publikoetako euskararen erabilpenaren neurketaren inguruan hainbat komunikabidetan irakurri eta entzun ditugun iritzi desegokiak direla eta, interesgarria iruditu zaigu euskararen erabilpena neurtzeko erabili ohi dugun metodologia honen ezaugarriak berriro ere azaltzea.

## Ikerketarako teknikak

Lehenik eta behin esan dezagun ikerketa soziologikoak burutzeko teknika desberdinak erabil daitezkeela eta erabiltzen direla/ditugula:

— Teknika kuantitatiboak. Aztergai den unibertsoari edo beronen lagin errepresentagarri bati aplikatuak: zentsoak, inkestak...

— Teknika kualitatiboak. Aztergai den unibertsoaren lagin estrategikoei aplikatuak: elkarrizketa sakonak, eztabaida taldeak, historia pertsonalak, azterketa partehartzaileak...

Teknika horiekin batera ordea, bada soziologian eta zientziaren beste-lako disziplina batzutan (etnologia, antropologia...) errealitate objektiboari buruzko datuak biltzeko erabili ohi den beste teknika bat: behaketa zuzenaren teknika, alegia.

Behaketa zuzenaren bidez, fenomenoetara zuzenki hurbiltzen gara, tarteko elementurik erabili gabe. Inkestetan esate baterako, errealitatearen eta inkestatuaren artean elementu bat tartekatzen da: galdekizuna. Behaketa zuzenak aitzitik, fenomenoak diren bezala jasotzen ditu; jendeak ez daki behatua edo neurtua denik ere. Nolabait esateko, ez dago errealitatearen *hibernaziorik*.

## Euskararen erabilpenaren neurketak

Duela 15 bat urte, SIADECO Ikerketa-Taldeak *Leku publikoetako euskararen erabilpena neurtzeko sistema* edo modu laburrean esateko euskararen kale-neurketa sortu eta definitu zuenean, soziolinguistika aplikatuaren alorrean somatzen zen hutsune bati erantzun nahi izan zion, ordurarte, *erabilpen erreala* neurtzeko sistemarik ez baitzegoen.

Metodo hau nazioartean edo beste nazioetako soziolinguistek aurkeztu izan zaienean, jakinmina eta berau erabiltzeko interesa sortu du, egokitzat jo da eta sarri aipatu zaigu ez dela metodo hoberik ezagutzen hizkuntzaren erabilpen erreala jasotzeko.

Geroztik, SIADECOK berak bideratutako ikerketetan ez ezik, hainbat udal eta erakundek erabili du sistema hau, euskararen erabilpenari buruzko datu objektiboak modu zientifikoan eskuratu ahal izateko.

## Metodoaren ezaugarriak


Laburki bada ere, neurketa-sistema honen metodologia esplikatu dugu (zehaztasun gehiagorako ikus *Bat* soziolinguistika aldizkariaren 9. zenbakia).

Lehenik aztergaia definitu egiten da: 1.—Azterketa non egingo den zehazten da. 2.—Ere geografiko

horretan bizitza sozialaren adierazgarri izan daitezkeen uneak aukeratzen dira. 3.—Azterketa burutuko den urte sasoiak aukeratzen da. 4.—Adin-multzok definitu egiten dira.

Behin elementu horiek definituz gero, handik aurrera burutuko diren neurketetan mantendu egingo dira, garai desberdinetako neurketen arteko konparagarritasuna bermatzeko.

Azterketetan bestelako aldagai batzuk



ere erants daitezke, informazio bereziagoak lortu asmoz: sexua, mintzakideen kopurua, haurren presentzia, hizkuntzaren kalitatea...

Ondoren, behatzaileek, ibilbide, egun eta ordu jakin horietan, kalean topatzen duten jendea zein hizkuntzatan ari den hizketan jasoko dute. Jasotzen dena beraz, ez da galdera bati emandako erantzun subjektiboa, behaketa zuzen objektiboa baizik.

Behaketa hauetatik lortutako emaitzen irakurketa azkenik, bi erataria egin daiteke:

— Sinkronikoki, mementuko errealitatearen *argazki* modura, datuak beti ere, erabilera-eremu edo franja baten adierazle bezala hartuz. — Diakronikoki, garai desberdinetako datuen arteko erkaketa eta bilakaera aztertuz. Konparatzen diren aldagaiak homogeneoak direla ziurtatuz.

## Jasotzen diren informazio-motak

Behaketa-sistema honen bidez jasotzen diren informazio-desberdinen artean honako hauek aipa genitzake: 1.—Euskararen erabilera-eremuak edo franjak. 2.—Erabilpenaren bilakaera: galera, mantentzea edo hobekuntza (motela edo bizia). 3.—Belaunaldien arteko banaketa erabilpenaren inguruan. 4.—Zonaldeen arteko desorekak hizkuntz erabilpenari dagokionez. 5.—Sexu eta adin-multzoen araberako desorekak (neskek mutilek baino euskara gehiago egiten duten ala ez; gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago egiten duten ala ez). 6.—Haurren eragina hizkuntzaren erabilpenean: ea zenbatetara dagoen euskararen erabilpena haurren presentziara baldintzatua. 7.—Eta hizkuntz erabilpenarekin lotura zuzena izan dezakeen beste hainbat fenomeno.

## Donostiako kale-neurketa

Gure ustez, hainbat komunikabide eta pertsonak, kaleratutako datuen irakurke-

ta desegokia egin duenez, ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu ondoren:

— *Erabilera-esparrua finkatu egin da* Azken 4 urteotako erabilpen-proporzioak aztertuta, garbi ageri da Donostiako leku publikoetako erabilpena % 9-11 franja horren inguruan kokatzen dela.

Esan genezake beraz, gaur egun, Donostiako leku publikoetan dabilzan pertsonen artean hamarretik bat inguru ari dela euskaraz. Honek esan nahi du Do-

Haurrak dira beraz, helduen euskararen erabilpenaren bultzatzaileak. Badakigu ordea, haurrek pertsona helduen portaerak imitatu egiten dituztela eta helduek ez badute euskaraz egiten, haurrek euskara *Haur hizkuntza* modura ikus dezaketela. Eta hau arrisku serioa da.

— *Helduen eta adinekoen erabilpen eskasa*

Urteak aurrera doazen heinean euskararen erabilpenaren soslaia edo perfla aldatzen doa. Duela 10 urte (1985) euskara gehien erabiltzen zutenak adinekoak ziren, orain ordea beraiek eta helduek erabiltzen dute gutxien euskara. Zer gertatzen ari den? Helduen baitan dago esplikazioa. Urteak aurrera helduen sailetik adinekoenera pasatzen ari direnek handiarazten dute adinekoen multzoa eta aldi berean eraldatu egiten dute, helduen adin-taldeak baitira guztietan eraldatzenak. Bestalde duela 10 urte 65 urtetik gora ziztuztenetik hil direnen artean euskaldunen proportzio handiagoa zen orain heldu izatetik adineko izatera pasa direnen artean baino. Demografiaren egitura aldaketaren eraginak!

Prozesu honen ondorioz euskararen erabilera haurren eta gazteen eskutik datorrela ikusten da eta denbora beharko dela Donostiako heldu eta adinekoen artean euskara gehiago erabiltzen entzuteko.

## Datuen fidagarritasunaz

Datuen fidagarritasunari buruzko zalantzaren bat ere agertu denez esan dezagun, metodoa erabili den kasu guztietan, jasotako emaitzak kontrastaturik metodoa bera balidatu egin dutela.

Datu horiek bestalde erabilgarriak izan dira hainbat fenomeno edo arazo detektatzeko, hainbat egitasmo abiarazteko, edo hainbat programaren emaitzak neurtzeko.

Adibide bezala, metodo hau erabiliz, EKBk Euskal Herri osoan lortutako emaitzak azaldu nahi genituzke (zehaztasun gehiagorako ikus *Bat* soziolinguistika aldizkariaren 13/14. zenbakia).

## Bukatzeko

Euskararen erabilpen errealararen neurketa-sistema hau, erabilpen objektiboaren analisirako elementu bat da: ez gehiago, baina ezta gutxiagorako ere.

Erabilpenari buruzko neurketa hauek, jendearen *ohiko* hizkuntz erabilerrari buruzko datuak eskaintzen dizkigute eta hizkuntz egoerari buruzko beste hainbat datu eta informazioaren osagarri gertatzen dira.

Edozein kasutan, egokiagoak dira behaketa sistema zientifiko lorturiko datuak, ikuspegi subjektibo edo inpresio pertsonaletan oinarriturikoak baino. Batez ere *inpresioak* oinarri gabekoak direnean.

Ikuspegi zientifiko batetik ezin dira interesen araberako *erabilgarritasuna* eta *egia* nahastu. ■